

**ARGITARAZTAILEA:** Euskal Editorea, SL  
**ZUZENDARIA:** Martxo Otamendi  
**ZUZENDARIORDEA:** Xabier Lekuona  
**EDIZIO ARDURADUNA:** Pilar Mendibil  
**PUBLIZITATEA:** iragarri, SL  
**LEGE GORDAILUA:** S5-0662/03  
**BATZORDE PAREKIDEA:** 1004-G884059

**EGOITZA NAGUSIA:** Martin Ugalde Kultur Parkea.  
 Gudarien Etorbidea 2/g. 20140 Andoain.  
 Telefonoa: (0034) 943-304030 Faxa: 943-300943  
**Webgunea:** www.berria.info  
**Posta elektronikoa:** berria@berria.info  
**Publizitatea:** publi@iragarri.net  
**Harpidetza saila:** 943-304345

**ORDEZKARITZAK:** Araba: Bizenta Mogel 6. Posta kodea: 01008 Gasteiz. Telefonoa: 945-150452. Erredakzio faxa: 945-148307. Posta elektronikoa: araba@berria.info.  
 Bizkaia: Urbitarte kalea 18, 3. C. Posta kodea: 48001 Bilbo. Telefonoa: 94-4352600. Erredakzio faxa: 94-4234975. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.info. Nafarroa: Iratxeko Monasterioa 45, 13. Posta kodea: 31011 Iruñea. Telefonoa: 948-366622. Erredakzio faxa: 948-273757. Publizitatea: 948-366623. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.info. Lapurdi: Lisses 3. Posta kodea: 64100 Baiona. Telefonoa: (0033) 559256220. Faxa: (0033) 559256303. Posta elektronikoa: lapurdi@berria.info

## » jira

## Heziketa

## AMAGIOIA IBAN

Baserria umez bete ohi zaigu. Esnea te-trabriketan sortu beharrean errape beteetik datorrela ikasten dute hemen irakaslearekin etorritako haurrek. Eta oilaskoek lumak eta burua izan ohi dituztela, saltokietako apal plastifikatuetan jartzeko norbaitek autopsia egin aurretik. Lur azpian hazten direla patatak, tipulak, azenarioak... hori ere erakusten diegu. Eta lur azpi horretan badela mundu ikusezin bat, zizarez, satorrez, luhartzetz eta hamaika biztanlez populatua. Eta mendira eramaten ditugu, sasoiari sasoiako fruituak jaso ditzaten, ezagutuz maitatzen has daitezten. Pipita berde fasean dauden gerezi proiektuak ezagutu dituzte gaur, esate baterako. Eta lore jantzia erantzen hasia den goiko sagastia, *striptease* zora-garria egiten. Muino batean hartu dute atsedean, haritz zahar baten babesean. Eta inguruko altsuma luzexkak haritz oso gazteak direla entzun dute. Eta hiru pertsona heldu agertu dira, *quad* zala-partari bana hankartean. Haritz gazte guztiak xehatu dituzte. Gurpil zabalen arantsoa beldarian tatuatuta utzi dute. Ez adiorik.

Hau izan ohi da natura hezitzailearen eguneroko kopia. Ez dakit nik irakurleei interesgarria irudituko ote zaien...

## » bira

## Kale

## SUSTRAI COLINA

Mundua apenas gurutzatzen diren bi kale amaigabek osatzen dute. *Le-trakale-k* eta *zientzikale-k*. Letrakaleko eskaleek poemak errezitatzen dituzte, herentzian jasotako saxofoiaren erritmora. Zientzikalekoek, aldiz, txapeltxoan datzan dirua kontatzea nahiago, *Elhuyar* aldizkariako ale zaharrak irakurtzen dituzten bitartean. Letrakalen, jatetxeek, angula ohean etzandako legatz piper-saltsatuak zerbitzatzen dituzte. Zientzikalen, Gadidoen familiako itsas arrain osteikietak. Kalearen arabera, *Teknopolis* ala *Sautrela* emiten dute albistegien partez, Einstein edo Sarrionandia gurtzen, betaurerakoak ala lupak lapurtzen... Bi bizimodu, bi pentsamolde, bi ikuskerak.

Horixe da sinetsarazi zaiguna. Institutuko hau behartuak diseinatutako mundua. Kaka ezpainetan! Zientziak dakiten bertsolariak nahi ditur. Idazteko gai diren fisikariak, ekuazioak askatzen dituzten idazleak, taxuz mintzo diren biologiak. Alegia, batak ez duela bestea kentzen. Denetik jakinda hobe.

## » martintxo



## » hitzordua

## Gure herrian arrotz

**JOSE LUIS ALVAREZ ENPARITZA,**  
**'TXILLARDEGI'**  
 IDAZLEA

**G**aur goizean Osakidetza joan naiz, Donostian.

—Kaixo! Egun on! —nik.  
 —¿Cómo dice? —takilaz bestaldeko emakumeak.  
 —Le he saludado en euskera: Egun on, ya sabe. Buenos días!  
 —Ya... No le había entendido. Aquí se oye mal. Dígame, dígame... ¿qué quería?  
 —Irribarrez berak.

Nork esan dezake gertakari xume hau harrigarria denik? Ehunka, milaka funtzionari erdaldun elebark onartu dituzte Osakidetza autonomia omen dugunez geroztik. Eta orain, lanpostu publiko horiek sakratu bihurtu dira. Eta ezker aldetik oztopa daitezke bai instituzioen euskalduntzea, bai euskaldunon eskubidea. Lanerako eskubidea baitago tartean.

*Talantea* ta guzti, frankismoaren garairan bezala, «aquí hablamos cristiano». Eta, ondorioz, euskaldunok geure herrian arrotz.

Horretan gaude. Ez du balio ez-ikusia egitea. Eta Bertendona-koek bazekiten egia hau dela, eta ez hortik zehar predikatzen dena.

Donostia honetan, ogia edo jakiak erostera nonbait sartu, mostradoreaz bestaldera hiruzpalau saltzaile topatu. Eta askotan: nirekin denak aisa euskaraz, baina beren artean denak erdaraz.

Herririk euskaldunenetan ere, bide beretik, taberna batera joan. Txiribogina nirekin euskaraz eroso mintzo. Bai-

na tabernako irratia ozenki piztuta: «Los Cuarenta Principales!!!» Boikot osoa Euskadi Irratiari, Euskadi Gazteari, Segura Irratiari, Bizkaia Irratiari, Xiberuko Botzari, eta gainerakoei. Guk irratia erdaraz.

«Abertzale» omen diren ehunka edo milaka batzuk, bestalde, egunero gogor beren erabaki ezin tinkoagoan: «Yo soy separatista... Yo soy de izquierda radical... Yo soy comunista... Yo soy anti-español radical... Yo soy super-roj... Pero, me cagó en todo: mientras yo viva no toleraré que se utilice en mi presencia otra lengua que la de Cervantes. ¿Entendido?»...

Areago. Nik neuk «abertzale» elebidun bitxi mordo bat ezagutzen dut. Baina elebitasun mota hauetakoak dira: gaztelania-frantsesa, gaztelania-inglese, gaztelania-alemana, gaztelania-turkiera (batzuk), gaztelania-afganiera (pare bat)... Gaztelania-zernahi. Zuk ez, ala?

Eta azalpen bera elebidun hauek: «Ya me gustaría hablar euskera. Pero es tan difícil... Tengo siempre tantas cosas que hacer... Es más: si yo supiera euskera como tú, jamás hablaría en español...» Erantzuna ziplo dator: «Zer egingo dut zurekin, horretara?». Baina nik, «radical» omen naizen hau, jokabidea hitzez

## Nola ausar daiteke

## Euskal Parlamentuko

## Lehendakarigaitzat

## aurkezttera euskaraz ez

## dakien pertsona bat?

hitz hartu beharrean... beraren erdarara egokitzen naiz...

Gotzon Garatek, Jose Manuel Odrionozlak, Koldo Izagirrek garrazki salatu duten egoeraz, irizkide naute erabat.

Hala ere, hau ez dago zalantzan jar-tzerik: azkeneko 25 urte honetan harri-garrizko urratsak egin ditu gure hizkuntzak corpus-aren eta irakasluntza-aren alorrean. Eta bestetan.

Baina ETB1 arratseko zortzi terdie-tan piztu. Eta, honegatik edo hartatik, hamar minututan, kitto. ETB2 bederatzietan piztu, halere, eta programa osoa aurrera. Ehunka aldiz gertatu zait. Erdaldun ikusleak lehenengo mailakoak dira. Gu euskaldunok, aldiz, behin eta berriz bigarrenekoak (edo ene-garrenekoak, hobe).

Eta goazen azkenekora...

Miguel Buen-ek jatorra ematen du tratuan. Baina ez daki euskaraz.

Nola ausar daiteke euskaraz ez dakien pertsona bat Euskal Parlamentuko Lehendakarigaitzat aurkezttera? Nola gerta daiteke oraindik herri zaf-ratu honetan horrelako ostikorik? Zer errespetu mota erakusten digute euskaldunoi Buenek eta Zapaterok horre-la jokatuz?

Eta Aznar are okerrago omen denez, zer esperu dezakegu euskaldunok Madriletik?

Baina giza-lotsarik ez dagoenez, zer dio legetasunak? zer dio «Estado de Derecho» delakoak?

1982ko Abenduaren 24an, Garaikotxearen garaiari, onartu zen «Euskara-ren Erabilpena»-ri buruzko legeak, es-

## » gogoeta

# Eta langabezia, zer?

JOSEBA FELIX TOBAR-ARBULU  
INGENIARIA

**T**eoría makroekonomiko berrien arabera, produkzioak errenta sortzen du eta errentaren osotasunak eskari osoa sorrarazten du. Hortaz, nola egon daiteke desberdintasun numeriko bat eskaintza osoaren eta eskari osoaren artean? Eta baldin eta eskari osoaren gabezia langabezia patologikoaren ezaugarria bada, nola adieraz daiteke *stagflazioa*: inflazioa gehi langabezia? Inflazioa eskaintza osoaren gaineko eskari osoaren gehitze gisa definituz, gerta ote daiteke benetan eskari osoa, batera, eskaintza osoa baino handiagoa eta txikiagoa izatea?

Schmitt ekonomialariak erakutsi duen moduan, inflazioak eta deflazioak jatorri komuna daukate: kapital-metaketaeren prozesu patologikoa. Horrek ez du esan nahi, hala ere, bi anomaliak halaberrez konkomitenteak diren. Beraien jatorri komunak ez ditu kausa bakar baten ondorio bizikiak egiten.

Gaurko bankugintzaren jardueraren arabera, mozkinak (birbanatuak zein inbertituak izan) kontabilitate-departamentu soil eta bakar batean sartzen dira. Horrela, diru-errentaren eraketa eta kapitalaren eraketa nahastzen dira. Irtenbidea, hortaz, mozkin horiek banatzea eta bi departamentu desberdinetan sartzea datza.

(i) Lehendabizi, lehengo bi departamentu horien arteko bereizketak segurtatzen du ezen bankuen finantza-departamentuan erregistratutako edozein gordailuk substantzia, eduki bat dauka, hau da, kontsumo-ondasunen *stock* bat, erosteko ahalmenaren helburu gisa. Banku-kreditu gehiegi sortzea alboratuz, bikoiztasun horiek segurtatzen du ezin dela sortu gordailurik lapitz-koipe baten bidez soilik. Existitzeko, edozein gordailuk banku batek monetizatutako ondasunen eta zerbitzuen produkzioa irudikatu behar du; izan ere, ondasuneko izutuaren merkatuan *output*-a saldu arte, azken *output* hori monetizatzen deneko forma monetarioak baitira banku-gordai-

luak. Alokairua ordaintzeko, enpresaren zorra objektiboki definitzen duen *stock* fisikoaren neurri monetarioa da produkturiko *output* berria —gordailu gisa II. departamentu horretan erregistratua—. Alokairu korrontea produktio-faktoreen merkatuan ordaindua denean gauzatu da aipatutako neurria, eta ezin da aldatu *output* korrespondentearen zirkulazioan, ez produktu-merkatuan, ezta finantzamerkatuan ere, zeren I. eta II. departamentu horien banaketa bikoiztak automatikoki albratzen baitu kreditu gehiegi sortzea.

Baina arazoa ez da hor bukatzen. Aurreko artikuluko batean ikusi genuen bezala, bankugintza modernoan hiru departamentu behar ditu banku-kontabilitateak: departamentu monetarioa (diruaren emisio edo jaulkitzerakoa), finantza-departamentua (aurrezkiak eta kredituak kontuan edukitzeko) eta kapital finkorako departamentua.

(ii) Bigarren, kapital finkorako departamentuaren sorrerak segurtatzen du ezen produkzio-prozesuan inbertitutako edozein mozkin badagoela sarriturik berriki produktutako produkzio-

## Anomalia inflaziogilea eta deflaziogilea bukatzeko, banku-kontabilitatearen erreforma sendo eta sakon bat halabeharrezkoa da

medioetan. Kapital-ondasunen antzera, azkenik aurrezkeriko errenta izanik, mozkin inbertituen kopuru osoa ezin da zirkulazio finantzarioan mantendu, zeren, bestela —gaur egungo kasuan gertatzen den bezalaxe— fondo bat definituko bailuke, inolako objektu salgarriari lotu barik. *Output* salgarri osoaren gaineko eskari demasiaren definizioa, preseski errealki saltzeko diren ondasun edo zerbitzuen bolumenaren errenta osoaren inflazioak ematen du (jadanik aurreko artikuluko batean ikusi genuen bezala). Hitz bitan, eduki ez-nahikoaren gaineko fon-

do demasiak definitzen du tarte inflaziogilea.

Baina inflazioa da gure sistema monetarioaren desfuntzionaltasunaren lehen anomalia. Mozkin inbertituen gordailu birberriak sorturiko bikoiztasunak numerikoki eskari osoa gehitzen du, sisteman eskuragarri dagoen unitate monetario bakoitzean erosteko ahalmenaren galera ekarriz. Inflazioak anomalia bakarra izaten segituko du, inbertsioak mozkingarriak izaten irauten duen bitartean, hau da, interes-tasa naturala merkatuko interes-tasa baino handiagoa den artean (Wicksell 1898/1965, *Interests and prices*. New York: Kelley).

Hala ere, egoera hau behin-behinekoa da, kapital finkoaren amortizazioak gain-metaketaeren prozesua suposatzen baitu. Horrela, kapitala gero eta arinago handitzen da; horrek nahitaez mozkinen eta kapitalen arteko *ratio*a gutxitzen du. *Ratio* hori merkatuko interes-tasara hurbiltzen denean, enpresek beren mozkinen osotasuna ondasun instrumentalen produkzioan inbertitzeari uzten diote. Haren ordainketa ezinezko bilakatuko duen kapitalean gehitze handiegia alboratzearen, enpresen multzoak bere mozkinen parte bat kontsumo-ondasunen produkzioan inbertitzen du. Horrek ondasun-merkatuan ondasunen eskaintza osoa gehitzen du, beraren erosteketa finantzatzeko errenta eskuragarria aldatu gabe utziz.

Zergatik da horrela? Produkzioak *output*-aren azken erosteketarako behar den errenta sortzen du, alokairuen ordainketak aurretik existitzen den errentaren gastua implikatzen ez badu. Hauxe da, hain zuzen ere, alokairuak mozkinetatik ordaintzen denean gertatzen dena. Kasu horretan, alokairuen ordainketarako gastaturiko errentak ezin du gehiagorik finantzatu ondasun-merkatuan eskatzen diren kontsumo-ondasunen erosteketa. Beste hitzez esanda, banku-kontabilitatearen departamentu finantzarioa eta kapitalaren departamentua bereizirik ez daudenean, inbertsioak errenta erreala bat errenta nominal huts batekin ordezkatzera darama. Kapital-metaketaeren

prozesuaren maila goiztiarrean hori gertatzen denean, gehitze nominalak soilik inflazioa implikatzen du. Hala ere, geroagoko maila batean gertatzen bada, kapital finkoko ondasunen produkzioa partzialki alokairu-ondasunen produkzioak ordezkatzeko denean, gehitze nominala ez da gai eskaintza errealeko gehiketara iristeko. Hortaz, enpresek eskaintza-gehitze hori mosen dutenean, langabezia agertzen da.

Beraz, deflazioa (edo langabezia) kapital-metaketaeren prozesu patologikotik dator, prozesu hori maila konkretu batera behin iritsiz gero, non kapital finkoa lehen handitu zen abiaduran ezin baita gehiagorik hazi. Gaur egun kapitalaren gain-metaketa —eskari osoaren hedadura inflaziogilea karakterizatzen duena— eta kapital-metaketaeren gutxitzea —eskaintza osoan gehiketa deflaziogilea karakterizatzen duena— biak gertatzen dira errentaren eta kapitalaren bereizketa logikoa bankuetako kontabilitate-egituran islatzen ez delako.

Teoria berriek argitu duten bezala, anomalia inflaziogilearekin eta deflaziogilearekin bukatzeko, biekien batera amaitzeko, banku-kontabilitatearen erreforma sendo eta sakon bat halabeharrezkoa da. Ondorioz, hiru departamentu desberdinak martxan jarri eta gero, enplegu osoa eskaintzak halabeharrez eskari berdinkidea sorraraziko du.

Horrela eginez, pentsamendu ekonomiko berriak tradizio historikoari jarraitzen dio: produktuak produktuen kontra elkartrukatzen dira, nazio bako produktu nazionala beste nazio bako produktu nazionalaren aurka. Ortodoxiak oraindik uste du produktuak moneta-kopuruen kontra elkartrukatzen direla; baina, moneta ez da ondasun bat. Teoria berrien arabera, truke monetarioetan edo truke monetarizatueta, beti produktuak produktuen aurka elkartrukatzen dira. Edozein errentaren hasierako eraketa, mota horretako trukea da: produktu nazionala monetaan aldatua da, hau da, bere kontra elkartrukatua izaten da. Produktu eta moneta errealtate bakar baten bi aurpegi besterik ez dira.

## » hitzordua

## Gure herrian arrotz

(Aurreko orrialdetik dator)

kubide batzuk onartu zizkigun euskaldunoi:

5. Artikulua:

5.a) Arduraritzarekin eta Autonomia-Elkartean kokatutako edozein lhardukitze-Sail edo Erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea...

5.e) edozein bilkuratan euskaraz egiteko eskubidea.

5.3 - Eskubide hauek eraginkorrak eta benetakoak izan daitezten, herri-egintzarisailek beraien erabilpena bermatuko dute.

Buen hautatuz, zertan da letgetasuna?

Baina, bestela ere.

Soma ote daiteke Kataluniako Parlamentu-burua katalano ez mintzatzea?

Edo-ta, haratago, Bruselgo burgomestreak nederlandezaz ez jakitea?

Bego horretan. Eta orain goazen Galiziarara.

Lei 3/1983 de 15 de Xuno de Normalización Lingüística.

» Artigo 1 - O galego é a lingua propia de Galicia. Tódolos galegos teñen o deber de coñecelo e o dereito de usalo» — Santiago de Compostela, 15 / VI / 1983 — Gerardo Fernández Albor, Presidente.

Katalanek, bide beretik, orain Madrilera eramango duten Estatutu proposa-

menean, bide beretik jo dute: katalaniar gutziek dute katalanera ezagutu beharra. Eta erabiltzeko eskubidea.

Bidenabar: testu horietan ez da epeirik aipatzen.

Zertan gara gu? Zertan da Ibarretxe Plana deritzona?

Noiz idatziko da, abertzaleon arteko gutxienez: euskaldun gutziek dute euskaraz jakin-beharra, eta erabiltzeko eskubidea?

Isil nadin...

Eta izan bedi aski honaino hitz gutxitan gogorazitakoa.